BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

858

EBAZPENA, 2012ko otsailaren 14koa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena, turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko laguntzak emateko 2012ko ekitaldirako deialdia jakitera ematen duena.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2011ko uztailaren 5eko Aginduaren bitartez (2011ko uztailaren 21eko EHAA, 139. zk.), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren laguntzen markoa finkatzen da, turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko. Bestalde, agindu horren hutsen zuzenketa 2011ko abuztuaren 29an (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 150. zk.) argitaratu zen.

Aipatutako aginduaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, egoki da hor iragarritako dirulaguntzak 2012ko ekitaldian emateko deialdia egitea, eta, horretarako eman beharreko arauak ematea.

Horiek horrela, aipatutako aginduaren 5. artikuluan ezarritako eskumenaren arabera, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xede da Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuak 2011ko uztailaren 5eko Aginduan aurreikusitako laguntzetarako 2012ko ekitaldirako deialdia egitea. Lehenengo agindu horren bitartez, arautu zen turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko laguntzak ematea.

Horretarako, 700.000 euro bideratuko dira, 5/2010 Legean (abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2012ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena) ezarritako aurrekontu-partidetan esleitutako kredituen kargura.

2. artikulua.– Betekizunak.

Turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko laguntzak arautzen ditu Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2011ko uztailaren 5eko Aginduak, eta laguntza horiek eskuratu ahal izateko, erreferentziako aginduaren 3. artikuluan ezarritakoarekin bat onuradun kondizioa izan beharko dute eskatzaileek.

3. artikulua.– Eskabideak eta epea.

1.– Programa honetako parte-hartzaileek turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko laguntza-programa arautzen duen aginduaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera bete eta aurkeztu beharko dituzte eskabidea eta agiri osagarriak. Aukeratutako izapidea telematikoa bada, eskabide-eredua eskuratzeko, eta eskabide hori Administrazioan aurkezteko, www.euskadi.net/turismo webgunean sartu beharko da. Bestela, www.euskadi.net/turismo webgunean eskabide-eredua eta inprimakiak bete eta grabatu ahal izango dira, gero, inprimatu, eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren dagokion Lurralde Ordezkaritzan aurkezteko, zuzenean edo

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako edozein bidetatik.

2.– Deialdiko laguntzetarako eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da; amaitu, berriz, 2012ko martxoaren 26an amaituko da.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehenengoa.– Deialdi-ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik izango ditu ondorioak.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 14a.

Merkataritza eta Turismoko sailburuordea,
MARÍA PILAR ZORRILLA CALVO.